

l a b u r r e a n



MIKEL MARTINEZ

Haur esplotazioaren aurka iazko maiatzean Bilbotik pasatu zen nazioarteko martxaren burua.

Haurren eskubideak etengabe ari dira bortxatzen mundu zabalean

Egoera aldatzeko, ekimen berri bat hasiko du UNICEFek

Jone Larrañaga / Donostia

◀ **Hamar urte beteko dira aurtan Haurren Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa onartu zela. Hala eta guztiz ere, munduan 250.000 milioi umek beraien adinerako egokiak ez diren lanetan jarduten dute, 130 milioi ez dira sekula eskolara joaten, eta gutxienez beste 300.000k gerretan parte hartzen dute zuzenean. Egoerari buelta emateko asmoz, ekimen berezi bat prestatzen ari da Nazio Batuen Erakundea (NBE).**

NBE-KO Hautzarorako Fondeak, UNICEFek, Umeen aldeko Ekimenaren izeneko egitasmoa jarriko du aurki abian, adin txikikoen eskubideak errespetatu daitezkeen exijitzeko. Ekimen horrek gizarteko sail guztien elkarlana bultzatu

nahi du, hasi NBEtik bertatik, eta gobernu kanpoko erakunde eta sektore pribatu-tuetaraino.

Asmoa da ekimen horrek zabalduko duen prozesua 2001. urtean burutzea, hain zuzen Nazio Batuek gai horri buruz egingo duten batzar orokorrean. Sustatzaileen arabera, batzar horretan nazioarteko konpromisoa hitzartu behar litzateke, 2015. urtea arte gobernuak arlo horretan eragin dezaten eta egoera aldatzen has daitezkeen.

Ekimen horren berri atzo eman zuen Carol Bellamyk, Unicefeko zuzendariak, Nazio Batuetako goi agintariek egin zuten batzarrean.

Han bildutako agintari guztiak etorri ziren bat egoera aldatu beharraz. Izan ere, oraindik haurren eskubideak etengabe eta argiro bortxatzen dira munduan. Gerra egoeretan haurrek pairatu

behar izaten duen egoera jarri zuen adibidetzat atzo Bellamyk. Azpimarratu zuen azken 30 gerretan 300.000 haur inguru aritu direla soldadu gisa, askotan indarrez hartuta, bahituta edota euren borondatearen kontra.

«Ez da karitatea, obligazioa baizik»

Kofin Annan NBEko idazkari nagusiak azpimarratu zuen, atzoko batzarrean, nahitaezkoa dela mobilizazio orokorra egitea, haurren eskubideak gizarte osoaren ardura direla arrazoituta. «Soil-soilik guztiok batera lan egiten badugu lortuko dugu gure haurren eta oraindik jaio ez diren belaunaldietako eskubideak garrantzitatez», esan zuen. «Haurren eskubideak errespetatu eta bermatzea ez da karitate kontua, betebeharra da», baieztatu zuen.

■ Osakidetzak euskalduntze politikan duen «axolagabekeria» salatu du LABek


OSAKIDETZAK, «bost milioi pezetako etekinak izan dituen arren», euskaldunei zerbitzu egokirik eskaintzeko inbertsiorik ez duela egiten salatu du LABek. Salaketa hori Lekeitioko unitatean gertatutakoan oinarrituta egin du sindikatuak, bertatik euskara normalizatzeko sei milioi pezetako dirulaguntza eskatu duten arren Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzak ezezkoa eman baitie. Sindikatutik jakinarazi dutenez, Lekeitioko Osasun Unitatean langileak eta Osakidetza euskara teknikariak urtebetez aritu dira unitate horretan euskararen erabilera normalizatzeko plan bat taxutzen. «Baina orain», salatu dute, «ezin dute plan hori aurrera eraman». Hori dela eta, osasun agintariek gai honetan duten «axolagabekeria» kritikatu du LABek.

■ Euskararen Aholku Batzordeko talde iraunkorrak gaur egingo du legegintzaldi honetako lehen bilkura

EUSKARAREN Aholku Batzordeko atal iraunkorra gaur arratsaldean batzartuko da Gasteizen, Juan Jose Ibarretxe Jaurilaritzako lehendakariaren zuzendaritzapean. Gaurkoa izango du Aholku Batzordeko talde iraunkorrak legegintzaldi honetako lehen bilera, eta, beraz, Ibarretxek zuzendutako lehena. Gaurko bileran, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ezartze eta garapenaren ildo nagusiak aztertuko dituzte eta Aholku Batzordearen aurtengo lan agenda zehaztuko. Horrezaz gainera, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeari aurkeztuko zaion txostenaren ildo nagusiak landuko dituzte.

■ Andoni Ortuzar datorren irailean agertuko da Legebiltzarrean aurrera

MARI KARMEN GARMENDIA Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburua eta Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusi berria irailean agertuko dira Legebiltzarreko Kontrol Batzordearen aurrean, atzo Parlamentuko Mahaia era-baki zuenez. Agerraldi horretan, irratia eta telebista publikorako legegintzaldi honetan erabakiko dituzten jardunbideak zeintzuk diren aurreratuko du Ortuzarrek.



JOSEBA OLALDE

Andoni Ortuzar, EITBko zuzendari nagusia.

■ Herrien Europa Institutuak Alberto Letona kazetaria aukeratu du fundazioeko lehendakari

Herrien Europa Institutuak, kontinenteko herri naturalak aztertu eta haien arteko harremanak sustatzeko jaio-tako fundazioak, Alberto Letona kazetaria aukeratu du lehendakari. Joan den azaroan eratu zen fundazioa, sortze prozesu luze baten ondorioz. Besteak beste, Juan Jose Pujana Eusko Legebiltzarreko lehendakari ohia, Mitxel Unzueta abokatua eta Javier Salcedo enpresaria dira fundazioaren sustatzaileak, eta kide ezagun-ezagunak biltzen ditu bere baitan: Nestor Basterretxea eskulturgilea, Pedro Miguel Etxenike fisikaria eta Juan Cruz Alli CDN alderdiko burua, beste askoren artean.

■ Milatik gora familiak eskatzen dute urtero Donostian gizarte larrialdiko laguntza

ARAZO ekonomikoak dituzten milatik gora familiak jotzen du urtero Donostiako Udalera gizarteko larrialdiko laguntzen bila. Asmo horretarako, guztira 250 milioi pezeta banatu ditu Udalak, 1998 urtean baino 100 milioi gehiago. Beharrean denak dirulaguntza eskatzeko epea zabalik du uztailearen lehenetik aurrera.

Haurrena, deklaraziorik unibertsalena

■ **HAURREN** Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa da Nazio Batuen Erakundeak bultzatzutako hitzarmenik unibertsalena, zeren eta, beste ezeinek ez bezala, munduan diren ia herrialde guztiek egin baitute ha-

rekin bat. Zehazki 193 herrialdek sinatu dute testua orain arte, Nazio Batuen Batzarra Osatzen duten baino zortzi kide gehiagok.

Gaur egun, Somalia da hitzarmen hori onartu ez duen munduko herrialde

bakarra. Berresteke, berriz, Somaliak berak eta Estatu Batuek dute hitzarmen hori.

Haurren Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa 1989 urteko azaroaren 29an onartu zuen NBEko batzarrak.

Nazioarteko hitzarmenak aldarrikatzen du haurren eskubideak unibertsalak eta zatietan direla, alegia, munduko haur guztiak dituztela eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta sozial berberak.